

◀️ LIBURUAK ▶️

Jose Manuel Balentziaga *Balentxiren* nortasunaz

Pilar Iparragirre
2099. alea
2007-07-29

🐦 Tweet 0

👍 Gomendatu 0

👍 0 👎 0



JEXUXMARI ZALAKAIN :: Balentxi

TXALAPARTA / HERRIA 2000 ELIZA

ORRIALDEAK :: 216

PREZIOA :: 16€

➡️ «Apostolua izan zen Balentxi, horretan ez dago dudarik»

Behartsuenen, zokoratuenen eta zapalduenen alde borrokan tinko iraun zuen apaiz katolikoa genuen Jose Manuel Balentziaga Añon *Balentxi* (1935- 2006). Erromako Eliza horren buruetako askok – baita gertuen ditugunek ere– segur aski nahiago izango zuten bere apaizgoa bertan behera utzi izan balu. Zen bezala zelako makina

bat debeku ezarri zizkioten, behintzat. Baina *Balentxi*k, bizitzako beste arlo askotan bezala, zailtasunak zailtasun, horretan ere ez zuen amore eman. Horretaz, eta haren bizitzako beste esparru askotaz mintzo da Txalaparta argitaletxea eta *Herria 2000 Elizaren* artean plazaratutako Balentxi. *Hamalagarren apostolua* izenburuko liburua. Jexuxmari Zalakainek prestatu du liburu horren mamia, baina *Balentxiren* lagun askok – eta etsai batzuk ere bai– parte hartu dute lanean. Lehenik eta behin, Jexux Arrizabalagak, Sabino Ormazabalak, Martin Ansok eta Txus Congilek, sustatzaile gisa. Eta beste frankok apaiz guztiz berezi haren bizitzako urratsen datuak, pasadizioak eta era guztietako gogoetak azalduz. Liburuak badu *Balentxi* berari hitza ematen dion tarterik ere: *Herria 2000 Elizan*, *Egin* eta *Gara* egunkarietan eta bestetan plazaratu zituen lanena.

«Apostolua izan zen Balentxi, horretan ez dago dudarik»

Zer suposatu du zuretzat liburu honek?

Balentxi lagun adiskide maiteari buruz idaztea, beste edozeren gainera, atsegin gozoa izan da. Baina betebeharrak ere bai. Izan ere, *Balentxiren* figura hurrengo belaunaldietan gogoratzea merezi duen horietakoa da, eta haren memoria idatziz uztea, nirea ez ezik, beste askoren zeregina ere izan da. Ze, liburu hau ez da nirea bakarrik. *Balentxi* ezagutu eta zerbait idazteko aukera eta gogoia izan dutenez gain, harekin zerikusia izan duten guztiena ere bada.

Zer diozu jarritako tituluaz?

Apostolua izan zen Jose Manuel Balentziaga Añon *Balentxi*, horretan ez dago dudarik, Jesus Nazaretakoak bere ikasle gisa aukeratutakoan espiritu berberaz jokatu baitzuen beti, libre eta ausart. Hamabi lagun hartu zituen berekin Palestinako profetak; bat ustel atera zitzaion, Judas Iskariote, saldu zuena. Haren ordean Bernabe aukeratu zuten lehen kristauek, Paulo gero. Hamairu apostolu osotara. Jorge Oteizak Arantzazuko komentuko ateburuan hamalau apostolu ezarri zituen Pietatearen inguruan. Zein ote hamalagarrena? Liburu honen egileen arabera, zalantzarik gabe hamalagarren apostolua *Balentxi* da.

Arrazoiak?

Euskal apaiz matxinoa izan zelako: behartsuen hurkoa, preso guztien anaia, Eliza ofizialaren zigorra, drogak jotako defendatzailea, zapaltzaileen etsaia, adinduen itsumutila, etorkinen babeslea... Euskararen maitalea ere izan zen. *Balentxi* beti ibili zen euskararekin lehian, ikasi nahirik setati.